

ARGIBIDEAK

AUTONOMÍA★ZAPATISTA

CONSTRUCCIÓN COLECTIVA DEL TERRITORIO AUTÓNOMO



EUSKARA



2-6
lagun



+10
urte



30-45
minutu



Itzulpenak eskuratzeko:

BURUJABETZA ZAPATISTA

Lurralde autonomoaren eraikuntza kolektiboa



**Bizitzaren Aldeko Bira 2021-rekiko elkartasun-
kolektibo eta pertsonak elkarlanean sortua.**

AURKIBIDEA

Sarrera

Osagaiak 07

Taularen azalpena 08

Prestakuntza 10

Jokoaren helburua 12

Jokoaren garapena 14

1. Testuinguru kartak aurkeztu 14

2. Dadoak bota eta kokatu 17

3. Errondaren ebazpena 20

Partidaren amaiera 24

Zailtasun mailak 25

Testuinguru kartak 26

Glosarioa 32

Idatz itzazu zure arauak 34

SARRERA

Komunitate zapatistek 27 urte baino gehiago daramatzate borrokan, sistema kapitalistari egindako arrakaletako bat izanez, bestelako mundu bat posiblea delako eradua ematen.

1994ko urtarrilaren 1ean Nazio Askapenerako Armada Zapatista (NAAZ/ EZLN) matxinatu egin zen eta hainbat lursaildunek bereganatutako hamaika hektarea berreskuratu zituen Txiapasen. Antolakuntza klandestinoko 10 urteren ondoren, komunitate zapatistek guda aitortu zioten Mexikoko gobernuari, "Aski da!" ohikatuz 500 urtetan zehar, herri indigena bezala, jasandako esplotazio eta lapurretei.

Ordudanik, komunitate zapatistek beren burujabetza eraikitzen dute. Beren osasun, hezkuntza, komunikazio, ekoizpen, gobernu eta justizia propioak kudeatzen dituzte antolakuntza asanbleario, partehartze masibo eta demokrazia zuzenaren bidez. Erresistentziaz eta errebelldiaz, milaka zapatista antolatzen dira elkarlagunaz bizimodu justu eta duinagoak kolektiboki eratzeke, zeintzuk izateko era anitzak errespetatuko dituzten, Ama Lurrarekin bizikidetasunean, herri indigenen zein emakumezkoen eskubide indibidual eta kolektiboen alde.

Zuen helburua, alegiazko lurralde autonomo txiki baten, elkarkidetzan, burujabetza eratzeke elkarrekin lan egitea izango da. Hori lortzeko **zapatisten 13 eskakizunak** bete beharko dituzue, **obedituz agintzearen 7 printzipioak** jarraituz. Hala era, ez da hain erraza izango, talde paramilitarrak, gobernuaren planak, megaproiektuak eta hondamendi naturalak izango ditugu oztopo.

OSAGAIAK



1 Taula



20 Lortutako helburuaren adierazle (izar gorriak)



10 Janari fitxa



1 Erronda adierazle
(Don Durito)¹



41 Testuinguru karta




13 Eskakizun fitxa




24 Dado: 12 gorri eta 12 beltz

TAULAREN AZALPENA

13 eskakizun zapatistak



Obedituz agintzearen 7 printzipioak



01

Komunitatea



02

Erizaindegia



03

Janari biltegia



04

Txanden zenbatzailea (Don Durito)

05

Osasun saila



Osasun zentro autonomoa

Osasun sustatzaileak⁴

Emaginak, hezuginak, belarginak (3 sail)⁵

07

Hezkuntza saila



Aretoa

Hezkuntza sustatzaileak⁶

Eskola autonomoa⁷

08

Ekoizpen saila



Agroekologiaren sustatzaileak⁸

Ekoizpen kooperatiba⁹

Gobernu Onaren Batzordea¹⁰

Irrati komunitarioa¹¹

Komunikazio sustatzaileak (Tercios compas)¹²

10

09







Komunikazio saila

11



Gobernu txarraren ziega

12



13

Panteoia

Soroak

PRESTAKUNTZA

1. Jar ezazue **taula** mahai gainean.

2. Jar itzazue taulan **lortutako helburuaren 2 adierazle (izar gorria)**: bat komunitatean eta bestea osasun zentro autonomoan.



3. Jar ezazue janari fitxa bat taularen janari biltegian.



4. Jar ezazue **errondaren adierazlea** taularen erdiguneko erronda adierazlearen hasierako posizioan.



5. Jar itzazue **13 eskakizun kartak** taularen ertzetan, dagokien lekuan ahoz gora, lortu behar diren helburuak erakutsiz.



6. Nahastu **testuinguru txartel guztiak**. Jarri multzoa ahoz behera taularen ondoan.

7. Zuzen banatu dado guztiak, **12 dado gorri eta 12 dado beltz**, jokalarien artean. Hau da, hiru lagun balira, 4 dado gorri eta 4 beltz bana. Dado hauek **lagun zapatistak** eta beren lan-indarra, zeinekin burujabetza eraikitzen duten, irudikatzen dituzte.

2 eta 6 pertsona artean jokatzeari gomendatzen den arren, 5 pertsonarekin dadoen banaketa ez da zehatza eta zuetariko batek dado bat gutxiagorekin jokatu beharko du. Hala gertatzen da ere 6 pertsona baino gehiagok jokatu nahi izanez gero. Horrelakoetan, jokalarien artean adostu beharko duzue nola egin dado banaketa bidezkoena.

JOKOAREN HELBURUA

Jokoaren helburua **13 eskakizun zapatistak eta obedituz agintzearen 7 printzipioak betetzea da hamargarren erronda amaitu baino lehen.** Horretarako larreak erein, etxebizitzak eta azpiegitura komunitarioa eraiki, sustatzaileak hezi, eta mehatxuen kontra borrokatu beharko duzue.

13 eskakizun zapatistak hauexek dira:

- ★ Lurra
- ★ Lana
- ★ Elikadura
- ★ Etxebizitza
- ★ Osasuna
- ★ Hezkuntza
- ★ Indepedentzia
- ★ Demokrazia
- ★ Askatasuna
- ★ Informazioa
- ★ Kultura
- ★ Justizia
- ★ Bakea



3 eskakizun txartelen ereduak.

Eskakizun bakoitza kartaren atzekaldean aipatzen diren bi helburuak burutzean lortzen da.



Esaterako, “Hezkuntza” eskakizuna lortzeko eskola autonomoa eta sustatzaileak lortu behar dira, biak ala biak.

Obedituz agintzearen 7 printzipioak hauexek dira:

- ★ Aginteaz baliatu.
- ★ Ordezkatu eta ez faltsutu.
- ★ Eraiki eta ez suntsitu.
- ★ Obeditu eta ez agindu.
- ★ Proposatu eta ez inposatu.
- ★ Konbentzitu eta ez menderatu.
- ★ Jaitsi eta ez igo.

Printzipio bakoitza Gobernu Onaren Batzordera deituz (aurrerago azaltzen da nola) lortzen da.

SERVIR
Y NO SERVIRSE ★

REPRESENTAR
Y NO SUPPLANTAR ★

CONSTRUIR
Y NO DESTRUIR ★

OBEDECER
Y NO MANDAR ★

PROPONER
Y NO IMPONER ★

CONVENCER
Y NO VENCER ★

BAJAR
Y NO SUBIR ★

JOKOAREN GARAPENA

Jokoak **10 erronda**, **gehienez**, izango ditu.

Erronda bakoitzean, lagun batek arduradunarena egiten du. Lehenengo arduraduna kideen artean gazteena izango da, eta ondorengoetan beti ezkerrekora pasatuko da kargu hau. Arduraduna erronda koordinatzeaz, estrategia diseinatzeaz eta adostasunak errazteaz arduratuko da.

Erronda bakoitzean hiru fase hauek ematen dira:

- 1 Testuinguru **kartak** erakutsi.
- 2 **Dadoak** bota eta kokatu.
- 3 Errondaren **ebazpena**.

1. Testuinguru kartak erakutsi

Erronda bakoitzaren hasieran, arduradunak **3 testuinguru karta** hartzen ditu, alboan jarritako testuinguru multzotik.



3 testuinguru karta eredu.

Testuinguru karta bakoitza alde desberdinek osatzen dute:



Kausa (paramilitarrak)¹³

Ondorioa(Soroa okupatuta)


Nola neutralizatu(bi dado kokatu 4 eta 5 balioekin)

Testuinguru kartaren ondorioa karta aurkezten den **momentuan bertan** aplikatzen da.

Adibidez, txartel honek soro bat okupatu berri duen talde paramilitar baten mehatxua irudikatzen du (irudikatzen duen larrearen gainean kokatu behar da, eta larre hori ereitea galaraziko du). Neutralizatzeko 4 eta 5 balioekin jarri behar dira dado bi bere gainean (hau errondaren erdian gertatu daiteke). Txartela neutralizatzen ez bada, hurrengo errondan bere eragina berriz aplikatuko da, eta 3 testuinguru txartel berriei gehituko zaie.

Testuinguru txartel batzuek ez dute datorik beheko aldean. **Horrek esan nahi du beren ondorioa aplikatu ostean deuseztatzen direla.**

Hau da, txartel honetan urakan batek osasun zentroa suntsitzen du (kokapen horretatik lortutako helburuaren adierazlea kendu behar da) baina ez da ezer egin behar taulatik kentzeko behin osasun zentroa suntsituta.



2. Dadok bota eta kokatu

Bota itzazue dado guztiak aldi berean taulatik kanpo. Pertsona bakoitzak bere dadoak zeintzuk diren jakin behar du.

Amankomunean erabaki beharko duzue dadoa inprimatuta daukaten kokapenetan nola jarriko diren, ekintza hori egin nahi dela adierazteko, elkarlagunduz helburu desberdinak lortzeko. Ekintza bat egiteko, eskatzen dituen dado guztiak kokatu. Ezin da ekintzarik amaitu gabe utzi. Ekintzak errondaren amaieran egingo dira.

Ekintza posibleak hauexek dira:

a) Laboratu: i: Lurrak lantzeko, janaria eskuratzeari dagozkion **3 daduak jarri** (goldatu-laboratu-uztatu):



Kontuan izan erronda bakoitzaren amaieran **4 janari unitate eskatuko** direla laguntza baseak elikatzeke, eta falta den janari unitate bakoitzeko lagun bat **gaixotzen** dela.

b) Mehatxuak neutralizatu: mehatxu bat neutralizatzeko eta taulatik kentzeko dagozkion dado **guztiak** kokatu behar dira.

Adibidez, talde paramilitar bat inbaditu duen larretik kanporatzeko bi dado kokatu behar dira kartaren gainean, bata 4 balioarekin eta bestea 5 balioarekin, eta errondaren amaieran kanporatua izango da.




c) Eraiki: komunitatearen parte bat, eskola, osasun zentroa, irratia, aretoa edo kooperatiba eraikitzeko, dagozkien dado guztiak kokatu behar dira.




Adibidez, dado bat 1 balioarekin badaukagu eta beste bat 2 balioarekin, eta 1 eta 2 balioak dauzkan komunitatearen partea eraikitzeke egonez gero, daduak bere gainean kokatu daitezke eta errondaren amaieran parte hori eraikiko da (kokatu lortutako helburuaren adierazle bat leku horretan)


d) Gaitu: osasun, hezkuntza, komunikazioa eta agroekologia sustatzaileak, eta emaginak/hezurginak/belarginak gaitzeko, dagozkien dado **guztiak** kokatu behar dira.



Esaterako, 2 baliodun dado bat izanez gero, eta 3 baliodun beste bat, emagin/hezurgin/belarginen gainean kokatu daitezke. Errondaren amaieran lortutako helburuaren adierazle bat jarri gaituak daudela erakusteko.



e) EZLN: EZLN-ari (Nazio Askapenerako Armada Zapatista) laguntza eskatzeko **bi dado gorri eta bi dado beltz** kokatu behar dira, edozein baliorekin, bere kokapenean



EZLN-ari laguntza eskatzen zaion bakoitzean, errondaren amaieran **ziegan** dauden dado guztiak **askatu** daitezke. Dado hauek guztiak, une horretan dado gutxien dauzkaten partaideen artean banatzen dira.

Garrantzitsua: Eskakizun zapatista batzuek EZLN-ari laguntza eskatzea inplikatzan dute. Erronda bakoitzean EZLN-aren laguntza eskatzen duten eskaera zapatistetako **bakar bat solik** lortu ahal izango da.

f) Obedituz agintzearen 7 printzipioetako 1 lortu: jar itzazue **dado gorri bat eta dado beltz bat** (edozein zenbakitakoa) **Gobernu Onaren Batzordean**, obedituz agintzearen printzipioetako bat lortzeko (jar ezazue lortutako helburu- adierazle bat, lortu dela adierazteko).



Zapatisten eskaera batzuek Gobernu Onaren Batzordea deitzea eskatzen dute. Erronda bakoitzean Gobernu Onaren Batzordea eskatzen duten eskaera zapatistetako **bakar bat soilik** lortu ahal izango da.

Garrantzitsua: erronda bakoitzeko **Batzorde** bat deitu ahal izango da, eta partida irabazteko **obedituz agintzearen 7 printzipioak** bete beharko dira. Beraz, jokoak irauten duen 10etako 3 errondatan bakarrik egon ahalko zarete Batzordea deitu gabe, **edo ez duzue irabazterik izango!**

Dado gorrien eta beltzen konbinazioa

Edozein balioen **dado gorri eta dado beltz bat** konbina daitzeke nahi den zenbakia lortzeko. Horrek emakume eta gizon zapatisten indarra sinbolizatzen du, elkarlanean edozein balio lortzeko.



Adibidez, eremu hori landu nahi balitz eta 4 balioa duten bi dado bakarrik baleude, 4 balioa duten bi dado jarri ahal izango lirateke, eta gero dado gorri bat eta dado beltz bat, haien blioak kontuan hartu gabe, falta den 4 balioa bihurtzeko.

Dado guztiak jarri ondoren edo gainerako dadoak jartzeko tokirik ez dagoenean, **erronda ebazpenera iristen da.**

3. Errondaren ebazpena

Errondaren amaieran, honako hauek egin behar dira:

1. Adierazitako **ekintzak** dadoekin egitea:

- **Kendu** taulatik erabat neutralizatu diren testuinguru-karta guztiak (erabilitako dado guztiak).
- **Eskola**, osasun-zentroa, kooperatiba, irratia, auditorioa eta beharrezko dadoekin lortu dituzten komunitateko zatiak **eraiki**. Eraikina eraikita dagoela, adierazteko, dadoak kendu eta lortutako helburuaren markagailu bat (izar gorria) jarri dadoen ikonoaren gainean.
- Bi dadoak okupatuta dituzten sustatzaleak **gaitu**. Gero, kendu dadoak eta lortutako helburuaren markagailu bat (izar gorria) jarri dadoen ikonoaren gainean.
- **Gobernu Onaren Batzordea** deitu bada, jarri helburu markagailua (izar gorria) lortutako **obedituz agintzearen 7 printzipioetako** baten gainean.
- **EZLN** aktibatu bada, **espetxean dauden dadu guztiak askatu**. Banatu askatutakoak dadu gutxien duten pertsonen artean.
- **Sendatu gaixo dauden pertsonak:**

Atera dado 1 erizandegitik osasun zentroa, osasun sustatzaileak edo emaginak/hezurginak/belarginak izanez gero.

Atera 2 dado erizandegitik osasun eremu osoa izanez gero (osasun zentroa, osasun sustatzaileak eta emaginak/hezuerginak/belarginak).

Osasun arloari dagozkion taulako elementuek dadoen ingurua urdin argiko kolorea dute.

Sendatutako dadoak dado gutxien dituzten pertsonen artean banatzen dira.



- Janari biltegian landatutako laborantza soroak beste janari unitate bat jartzen dira (dado guztiak dituzten soroak). Gainera, ekoizpen eremu osoa badago (kooperatiba eraikia eta agroekologia sustatzaile gaituak), aparteko janari unitate bat biltegiratuko da. *Ekoizpen arloari dagozkion taulako elementuek, dadoen ingurua granate edo gorri ilun kolorea dute.*

2. Komunitatea **elikatu**, erronda bakoitzaren amaieran 4 janari unitate kentzen janari biltegitik. Behar adina janari biltegiratuta ez baduzue, falta den janari unitate bakoitzeko, lagun bat **gaixotzen** da (erronda ardu nadunaren dadoetako bat jartzen da erizaindegian).

3. Zapatisten eskaeren lorpena **egiaztatzen** da. Eskariren baten baldintzak beteta badaude, gutunari buelta emango zaio, lortu dela adierazteko. Gogoratu EZLN edo Gobernu Onaren Batzordea inplikatzan duten eskaeretatik **bakarra** lortu ahal izango dela deitzen duten bakoitzean.



Adibidez, komunitatea elikatu ondoren janari unitate bat, gutxienez, edukiz gero eta agroekologiaren sustatzaileak gaitu badira, “Elikadura” eskaria lortuko da.

Garrantzitsua: “Askatasuna” eskaria soilik lortzen da EZLN deitzen bada espetxean lagunik **ez dagoenean**, eta **ez** lagunak espetxetik ateratzeko EZLN deitzen den bakoitzean.

4. Partidaren Amaiera eman den **egiaztatzen da**. Horrela ez bada, prestatu erronda hau:

- Erizaindegian, espetxean edo panteoian ez dauden taulako **dadoak jasotzen dira**.
- **Aurreratu errondako markagailua posizio bat** barraskilo (caracol) nagusian.
- **Pasatu testuinguru kartak hurrengo erronda ardunadurnari (ezkerrerantz)**. Hasi erronda testuinguruaren 3 kartari **buelta emanez**.


Hurrengo errondaren hasiera...

- **Komunikazio eremu osoa dago** (irradi komunitarioa+ komunikazio sustatzaileak), **eta megaproiektu batetik defenda daiteke**.¹⁴

Komunikazio arloari dagozkio taulako elementuek dadoen ingurua kolore berdea dute.



Testuinguru kartetan megaproiektu **bakarra** agertzen bada, ondorio negatiboak ez du eraginik. Magaproiektuko bizpahiru karta agertzen badira, bigarrenak eta hirugarrenak eragina dute.



- Hezkuntza arloa osoa badago (eskola+hezkuntza sustatzaileak+aretoa), gobernu proiektu batetik defenda zaitezke. ¹⁵



Testuinguru kartetan gobernu-proiektu **bakarra** agertzen bada, ondorio negatiboak ez du eraginik izango. Gobernu-proiektu bizpahiru karta agertzen badira, bigarrenak eta hirugarrenak eragina izango dute.



PARTIDAREN AMAIERA

Erronda bat amaitzean **13 eskaera** zapatista eta **obedituz agintzearen 7 printzipioak** bete badira, **partida irabazi duzue!** Zorionak!

Eskaeraren bat edo printzipioren bat falta bada eta 10 joko errondak bete badira, partida galdu duzue! Zorionez, hau jolas bat besterik ez da eta benetako autonomia zapatista jolas honetik kanpo dago.



ZAILTASUN MAILAK

Zailtasun maila areagotzeko edo murrizteko, jokoaren ezaugarri batzuk aldatu daitezke partida hasi aurretik, hurrengo taulan adierazten den bezala:

	Erraza	Erdikoa	Zaila
Hasierako eraikinak	Komunitatearen zati bat Eskola autonomoa Osasun zentro autonomoa Irrati komunitarioa	Komunitatearen zati bat Osasun zentro autonomoa	Batere
Hasierako janaria	3	1	Batere
Testuingu. txartelen multzoa	Atxilotzen, erailtzen edo lagunak gaixotzen dituzten kartak kendu	Txartel guztiak	3 testuinguru txartel gorri kendu (brigadistak, Bizi-Bira, Hildakoen Eguna, etab.)

TESTUINGURU KARTAK

Izurritea




Janaria galdu (janari unitate bat kendu biltegitik)

Lehortea



Janaria galdu (janari unitate bat kendu biltegitik)

Lur-jauzia



Osasun zentroa suntsituta

Ekaitza




Komunitate zati bat suntsitua

Eraso militarra¹⁶




Lagun 1 atxilotzen dute (erronda ardunadunaren dado bat)

Gaixotasuna



Lagun 1 gaixotzen da (ardunadunaren dado bat erizaindegian kokatu)

Urakan



Eskola suntsituta



Osasun zentroa suntsituta

Eraso paramilitarra



Larrea okupatuta (larreak okupatuta dirau eta ezin da erein mehatxua neutralizatu arte)



Ekoizpen kooperatiba suntsituta



Janaria galdu (janari unitate bat atera biltegitik)




Lagun bat erailtzen dute (erronda arduradunaren dardo bat panteoian kokatu partida osorako)



Osasun zentroa suntsituta

Megaproiektua



Megaproiektu batean erabilitako produktu kimikoek lagun bat gaixotzen dute (erronda arduradunaren dado bat erizaindegian kokatu)




Komunitate zati bat suntsituta



Larrea okupatuta (larreak okupatuta dirau eta ezin da erein mehatxua neutralizatu arte)

Gobernuaren proiektua



Konpa bat gaixotzen da (erronda arduradunaren dado bat erizaindegian kokatu)



Irrati komunitarioa desgaitua




Hezkuntza sustatzaileen lana oztopatuta



Emaginen/hezurginen/belarginen lana oztopatuta



Agroekologia sustatzaileen lana oztopatuta



Dado infiltratua: gobernuak pertsona bat infiltratzen du herrian eta antolakuntza desorekatzen du (erronda arduradunak dado bat botatzen du eta ateratzen den balioa daukaten dado guztien partaideek ez dute parte hartzen erronda horretan)



Arto transgenikoa

Inguruko soro transgenikoek 3 larre kutsatzen dituzte (ezin izango dira landu mehatxua neutralizatu arte)



Bigadista (emakumea)

Brigadista bat ailegatzen da lurralde autonomora. Bere lan-indarra ematen du baina janaria kontsumitzen du ere. (Janari unitate bat biltegitik kendu eta txartel hau erabili dado gorri gisa nahi den balioarekin erronda honetan)



Brigadista (gizona)

Brigadista bat ailegatzen da lurralde autonomora. Bere lan-indarra ematen du baina janaria kontsumitzen du ere. (Janari unitate bat biltegitik kendu eta txartel hau erabili dado gorri gisa nahi den balioarekin erronda honetan)



Emakume Borrokariak Nazioarteko Topaketa⁷

Emakumeen topaketa batek aliantzak sorten ditu, baina janaria kontsumitzen du (biltegiko janari unitate bat kendu eta erabili karta hau erronda honetan nahi den balioaren aparteko 2 dado gorri bezala)



Bestea ("Otroa")¹⁸

Laguntza-oinarrietako bat "Bestea/Otroa" bezala hartzen da (erronda bakoitzean eta partidaren amaierara arte, erronda-arduradunaren dadoetako batek bere generoa aukera dezake)



Bizitzaren Aldeko Bira

Bizitzaren Aldeko Birak aliantza politikoak sorten ditu behean eta ezkerrean, baina janari kontsumitzen du (janari-unitate bat biltegitik kendu, eta erabili karta hau aparteko dado beltz 1 eta dado gorri 1 bezala erronda honetan)



Hilen Eguna⁹



Panteoiko dadoek erronda honetan jokatzten dute (erronda amaitzean dadoak panteoira itzultzen dira)

CNI (Kongresu Nazional Indigena)²⁰



Kongresu Nazional Indigenak babesa emanten duen aliantza bat da (erabili karta hau erronda honetan nahi duten balioen aparteko 2 dado bezala: 1 gorri eta bestea beltza)

* Janari-unitate 1 galtzen bada eta biltegian **jatekorik ez badago**, falta den janari-unitate hori bakoitzeko, lagun 1 **gaixotzen** da. Erronda-ardunadunaren dado 1 jarri erizandegian.

** Testuinguru-kartek dagoeneko eraikita dauden eraikinak suntsitzen badituzte edo jardunean dauden sustatzaileak desgaitzen badituzte, kendu lortutako **helburuaren markagailua** (izar gorria) bere kokapenetik. Eraikita edo jardueran ez bazeuden, karta honek ez die eragingo. Eraikinak berreraiki eta sustatzaileak berriz gaitu ahal izango dituzte, behin karta neutralizaten denean edo kartaren ondorioa pasatzen denean. Hau **erronda berdinean** gerta daiteke.

Adibidez: urakan batek osasun zentroa suntsitzen du errondaren hasieran, baina errondan zehar berreraikitzen da, eta, azkenean, erizandegian dauden lagunak sendatzeko erabiltzen da.

Gaixotu, espetxeratu edo hiltzen den lagun bakoitzeko erabili gabeko dadoak errondako arduadunarenak dira. Hurrengo errondan, pertsona horrek dado gutxiago izango ditu.

GLOSARIOA

1. “Don Durito” Lakandonakoa

Marcos komandantearen kontakizunetako pertsonaia. Lakandona oihaneko kakalardo bat da, neoliberalismoa ikertzen duena.

2. Obedituz agintzearen Printzipioak

Autogobernua eta Gobernu Onaren Batzordearen justizia ematea arautzen duten printzipio politikoak.

3. Osasun zentro autonomoa

Osasunaren arretarako espazioa, medikuntza tradizionala eta mendebaldeko medikuntza konbinatzen dituen Osasunaren eta gaixotasunaren ikuspegi oso batetik, indigenen mundu-ikuskerak errespetatzen dituen.

4. Osasun sustatzaileak

Lurralde autonomoko osasun-zentroak zaintzen dituzten emakume eta gizon zapatistak. Komunitatearentzako zerbitzu gisa betetzen duten kargua, ordainsaririk gabe.

5. Emaginak/Hezurginak/Belarginak

Batez ere medikuntza tradizionalaren bidez sendatzeko ezagutzak eta trebetasunak dituzten emakume zapatistak.

6. Hezkuntza sustatzaileak

Lurralde autonomoko lehen eta bigarren mailako eskoletako emakume eta gizon zapatistak. Komunitatearentzako zerbitzu gisa betetzen duten kargua, ordainsaririk gabe.

7. Eskola autonomoa

Haur eta gazte zapatistek ikasteko hezkuntza -eredu autonomoa. Hezkuntza edukiak komunitateen errealitatetik abiatzen eta errespetatzen dira, inposaketa kolonialik gabe

8. Agroekologia sustatzaileak

Lurralde autonomoan agroekologia sustatzen duten emakume eta gizon zapatistak. Komunitatearentzako zerbitzu gisa betetzen duten kargua, ordainsaririk gabe.

9. Ekoizpen-kooperatiba

Lurralde autonomotik datorren ekoizpena biltegitratzeko eta saltzeko espazioa.

10. Gobernu Onaren Batzaordea

Komunitate zapatistetako emakumeek eta gizonak osatzen dute, eta autogobernurako eta justizia emateko auzialdi gorena eremu zapatista bakoitzean. Kideak bileretan aukeratzen dira eta txandaka betetzen dute kargua, ordainsaririk gabe. Herriaren agindua betetzen ez badute, kargua deuseztatu ahal da.

11. Irrati komunitarioa

Mintzalari zaatistek kudeatzen dute, ete komunitateen intereseko edukiak ematen ditu.

12. Komunikazio sustatzaileak (Lagun/Konpa Herenak)

Erakunde zapatistaren komunikabideez



arduratzen diren emakume eta gizon zapatistak. Komunitatearentzako zerbitzu gisa betetzen duten kargua, ordainsaririk gabe.

13. Paramilitarrak

Estatuak sortutako, entrenatu eta finantziatutako legez kanpoko talde armatuak. Lan zikina egiten dute gobernuarentzat, eta ezkutatu egiten dute gobernuak herri antolatuen aurkako mehatxu edo eraso ekintzetan parte hartzea.

90eko hamarkadaren erdialdetik, Mexikoko gobernuak kontrainsurgentzia ekintzak egiten ditu autonomia zapatisten eraikuntza ahultzeko talde paramilitar ugarien bidez.

14. Megaproiektuak

Obra extraktibista edo azpiegitura obra handiak dira, kapital-inbertsio handiak eskatzen dituztenak. Eredu kapitalistaren eta komunitate indigenen bizimodu tradizionalaren arteko talka dira, azken hauek Amalurrarekin orekan eta errespetuz bizi baitira. Megaproiektuek lur eta ondasun komunak kentzen dizkiete lurralde bateko biztanleei, bereziki jatorrizko herriei, eta hien aurka daudenak zapaltzen dute.

15. Gobernu proiektuak

Mexikoko gobernuak laguntza asistentzialista ematen die herritarrei, ekonomikoak zein elikagaiak. Emantzipazioa eta bizi-kalitatea sustatzen dituzten sorospenak izan beharrean, kidetze politikora baldintzaten dute biztanleria, eta menpekotasuna sortzen dute.

16..Lurraldearen militarizazioa

Kontrainsurgentzia estrategiaren barruan, Mexikoko gobernuak komunitate zapatisten inguruko lurraldeak militarizatzen ditu. Armada eta Guardia Nazionaleko milaka elementuk

herritar zapatistak beldurtzen eta erasotzen dituzte, lurraldearen kontrola berreskuratzen saiatuz.

17. Emakume Borrokalarien Nazioarteko Topaketa

Bi aldiz egin zen (2018 eta 2019an) eta milaka emakume bildu zituen, munduko txoko guztietatik, behetik eta ezkerrera antolatutak. Topaketetan, emakumeak bizitzea eta borrokatzea adostu zuten inor ez dadin gehiago emakumerik beldur izan.

18. Bestea ("Otroa")

Zapatismoak genero eta sexu aniztasunari erreferentzia egiteko sortutako terminoa.

19. Hilan Eguna

Urtero, azaroaren 1 eta 2an Mexikon Hilan Eguna ospatzen da. Hildakoen arimak bizidunen mundura itzultzen dira bere maitatuekin bizitzeko eta beren senideak eskaintzen dizkieten gozoki eta janariez elikatzeko.

20. Kongresu Nazional Indigena(CNI)

1996an sortua, Indigenen Kongresu Nazionala Mexikoko herri, nazio eta jatorrizko tribuen erakundea da, herri indigenen determinazio eta autonomiaren alde borrokatzen duena. Bost mende baino gehiagoko kolonialtasunaren eta lapurretaren ostean, CNI-k borrokatzen jarraitzen du bere lurraldearen antolaketa kolektibo eta autonomia eraikitzen.



IDATZI ZUEN ARAUAK

Joko hau egokitzen gonbidatzen zaituztegu eta zuen arauak aldatzera, asmatzera, amestera eta antolatzen.

[illegible]

This image shows a full page of white paper with horizontal dashed lines, typical of primary school handwriting practice paper. The lines are evenly spaced and run across the width of the page. There are no margins, text, or other markings on the paper.

